

LANBIDE-GARAPENEKO OHIKO DEIALDIA

OHIKO GALDERAK
MAILAK ESLEITZEKO BEHIN BETIKO ZERRENDAN

Osakidetza

1. BERTSIOA

OSAKIDETZAKO LANBIDE-GARAPENeko OHIKO DEIALDIA (2425/2023 EBAZPENA)

MAILAK ESLEITZEKO BEHIN BETIKO ZERRENDARI (1523/2024 EBAZPENA) BURUZ MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA.....	1
1. GAI OROKORRAK.....	2
2. ERREKLAMAZIOEN TRATAMENDUA.....	4

1. GAI OROKORRAK

1. IKUSI DUT DEIALDI HONETAN LORTU NAHI NUEN GARAPEN-MAILA AITORTU DIDATELA. NOIZ IKUSIKO DUT NIRE NOMINAN?

Aurreikusita dago 2023ko ekitaldiko deialdian aitortutako garapen-mailari dagokion soldata-osagarria 2024ko azaroko nomina-ordainagirian ordaintzea.

2. 1523/2024 EBAZPENA KONTSULTATU DUT, ETA EZ NAGO ERANSKINEAN. ZERGATIK?

Zure izena ez bada agertzen azaroaren 11ko 1523/2024 Ebazpenaren Eranskinean, horrek esan nahi du mailaren behin betiko esleipenean **ebaluazio negatiboa jaso duzula ebaluazio-fasean**. Ondorioz, ez zaizu aitortuko deialdi honetan lortu nahi zenuen lanbide-garapenaren maila.

Bestela esanda, eranskin horretan **deialdirako onartuta egonik 2023ko ekitaldian lortu nahi zuten lanbide-garapenaren maila aitortu zaien pertsonen izenak daude soilik**.

3. GARAPEN-MAILEN BEHIN-BEHINEKO ESLEIPENEAN BEZALA, EZ NAIZ ERANSKINEAN AGERTZEN, B BLOKEAN ESKATZEN DEN GUTXIENeko PUNTUAZIOA LORTU EZ DUDALAKO. HORREK ESAN NAHI AL DU NIRE ESKAERA OFIZIOZ BAZTERTZEN DELA?

Bai, hala da. Ebaluazio-prozedura amaitu ondoren, **B blokean** (Prestakuntza, Irakaskuntza, Jakintzaren hedapena, Ikerkuntza eta Berrikuntza) **gutxieneko puntuazioa lortu ez duten, baina A blokean** (Jarduera, Lanean aritzea eta Lanbide-jakintza) **eta C blokean** (Erakundearekiko inplikazioa eta konpromisoa) **bai lortu duten** pertsona onartuen eskabideak lanbide-garapeneko **deialdi honetatik kanpo geratuko dira, ofizioz**. Ondorioz, hurrengo deialdietara aurkeztu ahalko dira, nahi badute.

Nabarmendu behar da **ez dela argitaratuko arrazoi horrengatik ofizioz baztertu diren pertsonen zerrenda**. Hala ere, informazio hori Osakidetzako informazio-sistemetan erregistratuta geratuko da.

4. NIK EZ DUT EZ B BLOKEA EZTA C BLOKEA ERE GAINDITU. ORDUAN, ZEIN DA NIRE EGOERA?

Zu ere ez zara agertzen 1523/2024 Ebazpenaren eranskinean, baina, gainera, ebaluazio negatiboa jaso duzu deialdi honetan. Ondorioz, **bi urte itxaron beharko dituzu**, mailak behin betiko esleitzeko ebazpenetik zenbatzen hasita, **lanbide-garapeneko beste deialdi batean parte hartu ahal izateko**, Lanbide Sanitarioen Antolamenduaren azaroaren 21eko 44/2003 Legearen 38. artikulua 1. puntuaren c letrak ezartzen duen bezala.

5. LANBIDE-GARAPENAREN EREDUA ZABALEGIA ETA KONPLEXUEGIA DA, BERAZ, INFORMAZIO GEHIAGO NAHI NUKE. NORA BIDAL DITZAKET NIRE KONTSULTAK?

Lehenik eta behin, **Osakidetzako lanbide-garapena arautzen duen araudia** kontsulta dezakezu. Hala, honako hauek arautzen dute Osakidetzako lanbide-garapeneko sistema: azaroaren 22ko 395/2005 Dekretuak, A.1 lanbide-taldeko langileentzat; otsailaren 27ko 35/2007 Dekretuak, B.1 lanbide-taldeko langileentzat, eta abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuak, gainerako lanbide-taldeetako langileentzat. Era berean, ekainaren 3ko 106/2008 Dekretua eta 2022ko maiatzaren 10eko 60/2022 Dekretua araudi erregulatzailerik horren funtsezko zati dira.

Gainera, "**Ohiko galderak**" izeneko dokumentuak ere kontsulta ditzakezu. Azken deialdietako fase bakoitzerako, Osakidetzako intranetean eta web korporatiboan argitaratu dira. Oraintxe irakurtzen ari zaren dokumentu hau dokumentu-serie horren parte da.

Azkenik, **bidali zure kontsultak zure zerbitzu-erakundeko Langileen Zuzendaritzako langileei**. Ahalik eta gehien argituko dizkizute.

6. NOIZ IZANGO DA LANBIDE-GARAPENeko BESTE DEIALDI BAT?

60/2022 Dekretuaren arabera, beste deialdi bat egingo da urtero lanbide-garapenerako, lanbide-garapena ebaluatzeko eta aitortzeko prozedura berri bat ezarri arte. 2026 izango da hori egiteko gehieneko epea. Ondorioz, **beste deialdi egingo da, 2024ko ekitaldiari dagokiona**. Deialdi hori **2025aren hasieran argitaratzea espero da**.

2. ERREKLAMAZIOEN TRATAMENDUA

7. ESLEITUTAKO MAILEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAN, NI EZ NINTZEN DAGOKION ERANSKINEAN AGERTZEN, ETA ERREKLAMAZIOA EGIN NUEN. NOLA JAKIN DEZAKET ZER GERTATU DEN NIRE ERREKLAMAZIOAREKIN?

Sar zaitez **lanbide-garapenaren aplikazio informatikoan**, eta joan zaitez ekitaldi honetako (2023) deialdiko aitorten-eskaerara. Ondoren, joan zaitez "*Ebaluazioa*" fitxara (bertan egin eta aurkeztu zenuen erreklamazioa). Han aurkituko duzu **zure erreklamazioaren tratamendua**, eta hura baietsia, ezetsia edo partzialki baietsia izan den.

Jakina, azaroaren 11ko 1523/2024 Ebazpenaren **eranskina** kontsultatzen baduzu eta zure izena bertan agertzen bada, horrek esan nahi du lanbide-garapeneko deialdi honetan lortu nahi zuen garapen-maila aitortu zaizula azkenean.

8. NIRE KASUAN, NIRE ERREKLAMAZIOA PARTZIALKI BAIETSI DA. ZER ESAN NAHI DU HORREK?

Zure erreklamazioan egin zenituen **alegazioetako bat edo batzuk** baietsi egin badizkizute, **baina beste alegazio batzuk ez, partzialki baietsi gisa** ebazten da. Erreklamaturako **alegazio guztiak** onartzen zaizkizunean bakarrik ebazten da **baiespen** bidez. Bestalde, erreklamazioan egindako alegazioetako **bat bera ere baiesten ez denean, ezetsi** gisa ebazten da.

9. LANBIDE-GARAPENEN APLIKAZIOAN SARTU NAIZ, ETA IKUSI DUT BAIETSI EGIN DIDATELA AURKEZTU NUEN ERREKLAMAZIOA. HALA ERE, EZ NAGO SARTUTA 1523/2024 EBAZPENAREN ERANSKINEAN. ZER GERTATU DA?

Baliteke zure erreklamazioan egin zenituen **alegazioak** guztiz edo partzialki baietsi gisa ikustea, **baina ez lortu izatea** ebaluazio positiboa lortzeko **behar diren gutxieneko puntuak edo puntuazioak**. Izan ere, bi kontu ezberdin dira.

Erreklamazioaren tratamenduan, oro har, adierazten dizugu baietsitako alegazioekin lortzen duzun eskatutako gutxieneko puntuazioa edo puntuazioak. Hala eta guztiz ere, kontsulta ezazu **azaroaren 11ko 1523/2024 Ebazpenaren eranskina**, jakiteko ebaluazio positiboa lortu duzun eta deialdi honetan lortu nahi zuen garapen-maila aitortu zaizun.

10. LANBIDE-GARAPENEN APLIKAZIORA SARTU NAIZ, ETA IKUSI DUT PARTZIALKI BAIETSI DIDATELA B BLOKEKO PUNTUAZIOA. BAINA APLIKAZIO INFORMATIKOAN NIRE PUNTUAZIOA BERRIKUSTEN DUDANEAN, AURREKO PUNTUAZIOA AGERTZEN ZAIT ORAINDIK ERE.

Hala da: erreklamazioaren tratamenduan alegazio bat edo batzuk baietsi ahal izan zaizkizu, eta, ondorioz, zure puntuazioa handitu egin da dagokion ebaluazio-blokean (A, B edo C); baina **igoera hori oraindik ezin da ikusi** ez guztizkoan, ez lanbide-garapeneko aplikazioaren "*Ebaluazioa*" fitxan daukazun banakapenean.

Hala eta guztiz ere, **datozen egunetan dagozkion aldaketak egingo ditugu**, eta, beraz, aplikazio horretan berrikusitako azken puntuazioa eta horren banakapena ikusi ahal izango duzu. B blokearen kasuan, aldaketa horietako gehienek Curriculum Vitae aplikazioan adierazitako merezimenduen erregistroa eta/edo baliozkotzea zuzentzea eskatzen dute, ondoren lanbide-garapeneko aplikazioan birbarematzeko.

11. EZETSI EGIN DIDATE 787/2024 EBAZPENAREN AURKA JARRI NUEN ERREKLAMAZIOA. ONDORIOZ, EBALUAZIO NEGATIBOA LORTU DUT DEIALDI HONETAN, BAINA EZ NAGO ADOS HORREKIN. ZER EGIN DEZAKET?

Zure ebaluazio negatiboarekin ados ez bazaude, **gora jotzeko errekurtsua jar diezaiokezu Osakidetza Administrazio Kontseiluari**, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 1523/2024 Ebazpenaren aurka. **30 eguneko epea duzu horretarako**, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 1523/2024 Ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hau da, **2024ko azaroaren 23tik 2024ko abenduaren 23era** (biak barne).